

**PLE 03-FEB-22 (3/CP). ALDAKETA 2022KO AURREKONTU LUZATUETAN,
EUROPAKO DIRULAGUNTZEN BIDEZ
FINANTZATZEKOAK DIREN PROIEKTUEN
GASTUETARAKO**

PLE 03-FEB-22 (3/CP)

«IKUSIRIK espedientean jasotako agiriak Iruñeko Udalaren 2022ko aurrekontu luzatuaren aldaketaren inguruan –Alkatetzak 2021-12-31ko ebazpenaren bidez onetsia, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontuen eta gastu publikoaren arloan garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuak ezarritakoarekin bat– eta indarreko Aurrekontua betetzeko oinarriekin bat eta proposatutako gastuak –Europako dirulaguntzen bidez finantzatzekoak diren proiektuenak– premiazkotzat eta atzeraezintzat hartuta, HAU ERABAKITZEN DA:

1.- Kreditu-gehiarriak onestea 2021/60 – OPEN LAB proiektuaren gastu-partidetan 31.930,00 euroko zenbatekoarekin, finantziazio ukituko gastuetarako diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatuta (diru-sarreraren 20/87010 partida), xehetasun hauekin bat:

PARTIDA	DESKRIBAPENA / KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
11/92250/226990	Estrategia Bulegoa. Beste hainbat gastu	4.250,00
11/92250/233000	Estrategia Bulegoa. Beste hainbat kalte-ordain	750,00
40/17211/227060	Udalaren Energia Agentzia. Kontratuak, ikerketak eta lan teknikoak	26.930,00

2.- Kreditu-gehiarriak onestea 2021/70 – HIRI-AGENDA, NEXT GENERATION SUSPERTZE PLANA proiektuaren gastu-partidetan 225.734,70 euroko zenbatekoarekin, finantziazio ukituko gastuetarako diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatuta (diru-sarreraren 20/87010 partida), xehetasun hauekin bat:

PARTIDA	DESKRIBAPENA / KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
11/92250/226990	Estrategia Bulegoa Beste hainbat gastu	66.115,70
11/92250/227060	Estrategia Bulegoa Kontratuak, ikerketak eta lan teknikoak	157.619,00
11/92250/233000	Estrategia Bulegoa Beste hainbat kalte-ordain	2.000,00

3.- Aldatzea 40/17211/227060 partida (Udalaren Energia Agentzia. Kontratuak, ikerketak eta lan teknikoak), 2021/68 – EU CITY FACILITY proiektura bideratua, 60.000,00 euroko zenbatekoarekin, honako hauek baliatuta:

- Kreditu-gehiakuntza, 42.000,00 eurokoa, diru-sarreraren 20/87010 partida (Finantziazio ukituko gastuetarako diruzaintzako gerakina) zenbateko berean gehituz finantzatuta.
- Kreditu-sorrera, 18.000,00 eurokoa, Europar Batasunaren dirulaguntzen bidez finantzatua (diru-sarreraren 20/49700 partida).»

Erabaki hau jendaurrean paratzen da hamabost egun naturaleko epean, erabakia Iruñeko Udalaren iragarki-taulan argitaratu eta biharamunetik aitzina, herritarrek edo interesdunek aurkez ditzaten egoki jotzen dituzten erreklamazioak edo alegazioak.